

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

San Roke 3. HAPB-ren PR-5 partzelaren xehetasun-azterlana behin betiko onartzea eta lurzati hori babes akustiko bereziko eremu (babe) izendatzea (1072/2022/BT).

Udaleko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 30ean egindako batzarrean, eta Toki Araubideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. (1,c) artikulua emeten dion eskumena baliatuz,

ERABAKI DU:

Lehenengoa

Behin betiko onartzea San Roke 3. HAPB-ren PR-5 partzelaren xehetasun azterlana.

Bigarrena

PEOU-3 San Roke hiri-lurzoru finkatugabearen eremuko PR-5 partzela babes akustiko bereziko eremu izendatzea, eta esparruaren plan akustikoa onartzea, kutsadura akustikoa murrizteko eremuan egin beharreko jarduketekin.

Dokumentu honetako hirigintzako araudia honako hau da

PR-5 partzela pribatua.

- Eraikuntza mota: Eraikuntza Bakartua.
- Partzelaren azalera: 5.281,41 m².
- Etxebizitza kopurua: 88.
- Arau Subsidiarioen 2.1.6 artikulua aplikatuta: 116.
- Sestra azpiko aparkaleku-plazen gutxieneako kopurua (1,5 plaza/etxebizitza): 132.
- Sestra azpiko aparkaleku-plazen gutxieneako kopurua, 2.1.6 artikulua aplikatuta: 174.
- Sestra azpiko aparkaleku-plazen gehieneko kopurua (3 plaza/etxebizitza): 264.
- Sestra azpiko aparkaleku-plazen gehieneko kopurua, 2.1.6 artikulua aplikatuta: 348.
- Sestra gaineko eraikuntzaren gehieneko altuera (1) : 21,00 m azken forjatuaren goiko kotara.
- Sestra gaineko gehieneko okupazioa: 2.743,11 m².
- Sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna: 10.470,50 m².
- Haztatze-koefizientea: 1,15 Kokapena / solairu guztiak.
- Aprobetxamendu homogeneizatua: 12.041,07 m².
- Beheko eta goiko solairuetako erabilera nagusia: Etxebizitza kolektiboa.
- (Erabilera osagarriak – Arau Subsidiarioen 2.5.5 artikulua).
- Sotoetako erabilera: Garajea/aparkalekua, trastelekuak eta etxebizitzei erantsitako instalazioak.
- Espazio libreetan baimendutako erabilerak: Azpiegiturak, lorategiak, jolaserako eta aisialdirako zonak.
- Erabilera debekatuak: Gainerako guztiak.
- Partzelaren erreferentziazko sestra: 113,07.

(1) O-3 planoan (O-4, O-5 eta O-6) definitua.

Isolamendu akustikoa – Partzelaren zonako planaren arabera, isolamendu akustikoa betetzea justifikatzen duen azterketa aurkeztuko da eraikina egikaritzeko proiektuarekin batera. Bertan adierazi



beharko da barnealdean maila horiek betetzeko erabili beharreko beira eta arotzeria mota, fatxadako baoen azalera eta barruko gelen dimentsioak kontuan hartuta. Eraikuntzaren kanpoko perimetro-ranzko fatxadetan D2m,nt,Atr balioa 32 dB(A)-koa edo handiagoa izan beharko da logeletan, eta 30 dB(A)-koa edo handiagoa gainerako fatxada eta geletan.

Xehetasun-azterlanaren eta Esparruaren Plan Akustikoaren Dokumentu osoa, udalaren web-orrian (www.durango.eus) dago eskuragarri, «garapen planeamendua» atalean.

Durangon, 2022ko abenduaren 27an. — Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja